



LITERAKTUM

Hitzen hiria

OLGA TOKARCZUK DONOSTIAN EGONGO DA MARTXOAREN 13AN

2018ko Literatur Nobel sariduna den Olga Tokarczuk idazle poloniarra **martxoaren 13an** San Telmo Museoa izango dela jakinarazi nahi du Donostia Kulturak. Jarduera honek **Literaktum Topaketak** programari hasiera emango dio. Ereku berri honetan, urtean zehar ibilbide ezaguneko nazioarteko egileen bisitak jasoko ditugu.

Europako literaturan aditua den **Mercedes Monmany** idazleak lagunduta, Olga Tokarczukek bere ibilbide literarioa berrikusi eta 2019an argitaratutako *Los Errantes* nobelara (*Bieguni* jatorrizkoan, *Lasterkariak*) hurbilduko gaitu.

Jarduera hau Madrilgo [Poloniako Kultura Institutuarekin](#) batera antolatua izan da.

Olga Tokarczuken hitzek honela definitzen dute bere obra: *"Jendea batzen duen literaturan sinesten dut, zein antzekoak garen erakutsi eta guztiok hari ikusezinez lotuak gaudela jabetzera garamatzana. Munduaren historia osotasun bizi eta bateratu bat balitz bezala kontatzen duena, gure begien aurrean etengabe garatzen dena; gu zati txiki bat baino ez garena, baina aldi berean ahaltzua"*.

Hitzaldia **San Telmo Museoko Kaperan** izango da arratsaldeko **19:00**etan, eta **sarrera libre**a izango da aretoa bete arte.

Poloniako idazte eta saiogilea (Sulechów, 1962) Nobel sarien ehun urte luzeko historian izandako hamabosgarren emakume saritua bihurtu zen iaz. Epaimahaiak "irudimen narratiboa" eta "pasio entziklopedikoa" txalotu zituen. Egilea ezaguna da bere herrialdean mugimendu ultraeskuindarren kontrako aktibismoagatik. Psikologoa prestakuntzaz, nobelak, eszena-egokitzapenak, ipuin-liburuak eta hainbat poemabilduma kaleratu ditu Tokarczuk-ek.

Bieguni (Lasterkariak) nobelatik bi testu euskaratu ditu Uxue Alberdik eta Armiarma.eus-eko Euskarari ekarriak sailean daude. [Lotura](#).